

PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua:	05 - EKONOMIA SUSTAPENeko ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO
Atala:	0510 - Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusia
Programa:	100 - LK- Lurraldearekiko Konpromezua
Funtzionala:	433 - Enpresa garapena

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Gipuzkoako garapen ekonomikoa sustatzea, enpresen lehiakortasuna eta negozio berrien sorrera bultzatuz, lankidetzan eta iraunkortasun hirukoitzaren printzipioetan (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) oinarritutako eredu batekin, lurraldearen indarguneak eta ekosistema aprobetxatuz, pertsonak erdigunean jarritz eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatuz garapen ekonomikoaren dimentsio guztietan.

Egoeraren diagnostikoa:

Plan estrategikoak pertsonak ditu ardatz. Erronka berriak planteatzen ditu absentismoak, eraldaketa demografikoaren ondoriozko talentu-eskasiak, desberdintasunek, enpresetarako pertsonen gaikuntza-behar berriek eta gizartearen eta, bereziki, gazteen balio berriek lana aukeratzeko orduan... azken batean, gizartearen bilakaerak eta enpresak errealitate berri horretara egokitzeak.

Ekonomiak oinarri hauek izan behar ditu: negozio berriak sortzea, enpresen barruan dibertsifikazioa eta ikerketatik eta pertsonen ekimen ekintzailetik sortzen diren aukera berriak.

Gainera, Gipuzkoako egitura ekonomikoa oso zentratuta dago ETEetan, eta, kasu askotan, familia-enpresak dira. Egitura horrek hainbat erronka dakartza berekin: jarraitutasuna, tamaina handitzea edo ingurune global batean lehiakortasun-erronkei aurre egiteko lankidetzan aritzea.

Gobernantza berriak lurralde-eragileen ahalegina bateratu nahi du; ildo horretan, tokiko garapen-erakundeek sustapen ekonomikoan lan egiten dute, eskualdeen egoera eta ezaugarri bereizgarriak kontuan hartuta, eta, beraz, laguntzaile garrantzitsuak dira eskualde bakoitzera egokitutako lurraldeko lehentasunezko jarduerak ezagutzeko, hedatzeko eta praktikan jartzeko. Gainera, gobernantza-modu berri horretan ekosistemako beste eragile batzuk ere sartzen dira, beren izaeragatik enpresetan edo pertsonengan eragiten dutenak.

ORKESTRAk Gipuzkoako lehiakortasunari eta ongizateari buruz egindako diagnostikoan jasotako datuen arabera, Gipuzkoako enpresen produktibitateak eta errentagarritasunak bilakaera positiboa izan dute azken urteetan, baina adierazle batzuetako emaitza on horiek oraindik ez dute lortu 2020an izandako beharakada gainditzea. Per capita BPGak joera positiboa erakusten du, EB-27ko batez bestekoa gainditzen duena, nahiz eta Alemania bezalako herrialdeen azpitik jarraitzen duen. Produktibitatea EB-27ko batez bestekoaren gainetik dago, baina Alemaniak dituen mailetatik urrun, eta enpresen errentagarritasuna sendoa da, errentagarritasun ekonomiko eta finantzarioaren adierazleak bat baitatoz EAEko eta estatuko batez bestekoekin. Gipuzkoako enpresek salmenten % 0,7ko igoerarekin itxi zuten 2024a. Gipuzkoako lan merkatuak indartsu jarraitzen du, eta 2024an Gipuzkoako enpresek enplegatutako pertsonen kopurua % 1,7 igo zen 2023arekin alderatuta, Ogasun eta Finantza Departamentuak enpresen egoerari buruz egindako txostenaren arabera. Gainera, lan-etekinak jasotzen dituzten pertsonen kopurua % 1,7 igo da, eta enpresek ordaindutako soldaten kasuan, igoera % 6,7koa izan da.

2024ko salmenten igoera zerbitzuen sektorean kokatzen da bereziki, industriak ez baitu halakorik izan eta eraikuntzak behera egin baitu. Gipuzkoako enpleguaren % 42 kontzentratzen da 50 langile baino gehiagoko enpresetan, eta horrek esan nahi du pertsona gehienek enpresa txikietan lan egiten dutela. Gero eta globalagoa den merkatu batean sartzeak, non ezusteko, askotariko eta kontrolatu ezin diren mugimenduen eraginpean dauden hornitzaileak, bezeroak eta baliabideak dauden, ziurgabetasuna etengabekoa izatea eragiten du. Gainera, biztanleriaren egiturak berak, gero eta adin handiagoa duenak kasu askotan enpresa familiarrak diren enpresa sarean, enpresen eta negozioen ondorengotza eta jarraipena heldu beharreko beste erronka bat bihurtzen du.

Bestalde, ekintzailetza jarduerari buruzko GEM txostenak, Gipuzkoako lehiakortasun txostenak eta EUSTATEk bildutako datuek generoarekin lotutako desberdintasunak identifikatzen dituzte, zerikusia

dutenak emakumeen ikasketa maila txikiagoarekin eta haiek sortutako enpresek finantzaketa lortzeko zailtasun handiagoekin, bai eta soldata arrakalarekin, lan prekarietate handiagoarekin eta zuzendaritza postuetan ordezkartza txikiagoa izatearekin

Beharraren deskribapen xehatua:

Gizartearen bilakaerari aurre egiteko eta enpresak errealitate berrira egokitzeko, beharrezkoa da enpleguaren kalitatea bultzatuko duten ekimenak abian jartzea, bizitza osoan zehar eta enpresek eta gizarteak teknologia eta behar berrietara egokituz behar dituzten eremuetan pertsonen gaikuntza sustatuko dutenak, enpresak kontzientziatuko dituztenak eta beren kudeaketan, balioetan eta kulturen ikuspegi hori txertatzen lagunduko dutenak.

Ekintzailatza sustatu behar da ekonomia osasuntsu eta gero eta handiago baterako oinarri gisa, bai ikerketa eta garapenetik eratorritako ekintzailatza, bai ekintzaileetatik datorrena. Horrek esan nahi du erakundeek negozio berri horietan inbertitzen lagundu behar dutela, negozio horiek sortzeko arriskua dutenei lagundu behar zaiela eta enpresen barne-ekintzailatza sustatu behar dela.

Gipuzkoako egitura ekonomikoa batez ere ETEek osatzen dutenez, beharrezkoa da haien lankidetzaren bultzatzea, merkatu desberdinetan lehiatzeko tamaina handiagoz iristeko, eta haien jarraitutasuna, hazkundea, lehiakortasuna edo sustraitzea bultzatzeko.

Gobernantza-modu berriek ekosistemarekin eta ekosistema osatzen duten eragileekin lankidetzan aritzeko tresnak behar dituzte.

Bestalde, beharrezkoa da Gipuzkoako enpresei kudeaketa, antolaketa eta merkaturatzea hobetzeko erronketan laguntzea, beharrezko lehiakortasuna ahaztu gabe. Era berean, ingurumena errespetatzen duen ekonomia baterantz eraldatzean lagundu behar zaie.

Azkenik, lurraldearekiko konpromisoak sustapen ekonomikoaren eremuan gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean aurrera egiteko konpromisoari lotuta egon behar du, ekintzailatzarekin eta haren finantzaketarekin lotutako etenak gainditzeko lan eginez, enplegurako prestakuntzari, soldata-arrakalari edo erabaki-postuetan emakumeen ordezkartza txikiagoa izateari dagokienez.

Nori zuzendua:

Pertsonak beren bilakaeran (eskola, unibertsitatea eta profesionala), emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak kontuan hartuta; enpresak (funtsean, OTEBak eta ETEak); eragile ekonomikoak, sozialak eta lurraldekoak.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Bertoko langileak, baliabide ekonomikoak eta laguntza teknikoak

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

Emakumeen eta gizonen aukera eta emaitzen berdintasunaren, irisgarritasunaren eta garapenaren ikuspegitik:

- Enpresen lehiakortasun hirukoitza sustatzea, hiru trantsizio handiei ekiteko.
- Ekosistema ekintzailea indartzea
- Kalitatezko enpleguaren ezaugarriak finkatzeko alderdiak indartzea
- Pertsonen gaitasunak areagotzea
- Pertsonetan oinarritutako enpresak sustatzea
- Jarduera ekonomikoa eta lurraldearen ezagutzaren sektorea integratzea, lurralde kohesionatua indartzeko.
- Jarduera ekonomikoak errotzen lagunduko duten finantzabide berriak antolatzea.
- Garapen endogenoa sustatzea
- Lurraldeko enpresek berdintasunerako ekintzak eta neurriak har ditzaten sustatzea.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Laguntzak: diru-laguntzak, tresnak (gidak, aplikazioak...) autodiagnostikoak, ekintza-planak, balorizazio soziala...

Programaren arau esparrua:

3/2007 FORU ARAUA, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzkoa (GAO, 2007ko apirilaren 12koa).

24/2008 FORU DEKRETUA, apirilaren 29koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren Erregelamendua onartzen duena (GAO, 2008ko maiatzaren 6koa)

Berdintasunari buruzko araudia eta nabarmentzekoa:

Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua

2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa

2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua: Enpleguaren kalitatea sustatzen duen ekonomia bultzatzea, enpresen erronkei erantzutea eta pertsonen beharrei erantzuten diena.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Dirulaguntza deialdi edota lehiakortasun programetan parte hartutako ETE kopurua	Kopurua	=	567,00	600,00	700,00	800,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:

Pertsonen ekarpenak, gaitasunak eta konpromisoa sustatzera bideratutako enpresaren kultura sustatzea, besteak beste, emakumeen errealitatei erreparatuz.

	% 99,87		% 0,13				
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz	
Ekintza lerroa, guztira	2.528.272,08	668.000,00		2026/01/01	2027/12/31		
1.1 Ekintza	4.141,18			2026/01/01	2026/12/31		
Programaren eragin lingüistiko handiko kontratuetan edota dirulaguntzetan hizkuntza-klausula berriak txertatu.							
1.2 Ekintza	2.524.130,90	668.000,00		2026/01/01	2027/12/31		
Enpleguaren kalitatea sustatzea							

2. Ekintza lerroa:

Enpresek parte hartzeko ereduak sustatzea, kudeaketa, kapital eta emaitza mailetan.

8 LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA % 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	543.282,85	210.000,00		2026/01/01	2027/12/31	
2.1 Ekintza	543.282,85	210.000,00		2026/01/01	2027/12/31	
Enpresetan parte-hartzea sustatzea						
3. Ekintza lerroa:						
Talentua sortzea, erakartzea, sendotzea eta fidelizatzea eta pertsonen gaitasunak indartzea, besteak beste, proiektu erakargarriak sortuz.						
4  % 100,00						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	410.149,26	140.000,00		2026/01/01	2027/12/31	
3.1 Ekintza	410.149,26	140.000,00		2026/01/01	2027/12/31	
Bizialdi osoko ikaskuntza bultzatzea						
Urteko helburua: Gaitasun eta aukera lehiakorrak sustatzea sektore ekonomikoak sendotuz edota eraldatuz eta berriak bultzatuz.						
Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Sortutako enpresa berrien kopurua	Kopurua	>=	266,00	249,00	255,00	364,00
Emakumezkoak			187,00	153,00	159,00	258,00
Gizonezkoak			79,00	96,00	96,00	106,00
Foru Aldundiak sustatutako berrikuntza proiektuetan onuradun diren ETEei emandako laguntzen zenbatekoa eurotan (%)	Ehunekoa	=	88,00	85,00	85,00	85,00
Foru Aldundiaren proiektu estrategikoen esparruan sortutako edo bizkortutako enpresak	Kopurua	=	8,00	8,00	10,00	20,00
Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak						
1. Ekintza lerroa:						
Enpresa ehunaren lehiakortasuna sustatzen jarraitzea, berrikuntza, ezagutza aurreratua eta balio erantsia ardatz hartuta, lurraldearen, ingurumenaren eta gizartearen beharrei eta erronkei erantzun egokia emateko.						



% 99,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	13.180.307,20	3.654.000,00		2026/01/01	2027/12/31	
1.1 Ekintza Enpresen lehiakortasuna babestea	11.580.271,25	3.154.000,00		2026/01/01	2027/12/31	
1.2 Ekintza Trantsizio ekologikoa bultzatzea	1.600.035,95	500.000,00		2026/01/01	2027/12/31	
2. Ekintza lerroa: Lehiakortasunerako azpiegituren ekosistema sendotzea.						



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	9.693.093,15	7.312.330,00	900.000,00	2026/01/01	2028/12/31	
2.1 Ekintza Lehiakortasun-ekosistema babestea	6.151.670,20	3.187.330,00	900.000,00	2026/01/01	2027/12/31	
2.2 Ekintza Finantza-tresnak diseinatu eta abian jartzea	3.541.422,95	4.125.000,00		2026/01/01	2028/12/31	
3. Ekintza lerroa: Ekintzailletza eta barne-ekintzailletza sustatzea.						



% 4,72



% 95,28

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	3.731.031,05	1.878.000,00		2026/01/01	2028/12/31	
3.1 Ekintza Enpresak sortzeko prozesuan laguntzea	1.490.995,10	916.750,00		2026/01/01	2028/12/31	
3.2 Ekintza Emakumeek bultzatutako enpresa sortzeko proiektuei laguntzea	384.290,85	145.000,00		2026/01/01	2027/12/31	
3.3 Ekintza Ekintzailletza eta barne- ekintzailletza babesteko	1.855.745,10	816.250,00		2026/01/01	2027/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
egiturak						

GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Diru-sarrerak eskuratzea

Beharraren deskribapen xehatua:

Ekintzailtza-jarduerari buruzko GEM txostenak, Gipuzkoako lehiakortasun-txostenak eta EUSTATEk bildutako datuek generoari lotutako desberdintasunak identifikatzen dituzte, emakumeen ekintzailtza-maila txikiagoarekin eta haiek sortutako enpresek finantzaketa lortzeko zailtasun handiagoekin lotuta, bai eta soldata-arrakala, lan-prekarietate handiagoa eta zuzendaritza-postuetan ordezkari txikiagoa izatearekin ere.

2023ko datuak aurreko urtearekin alderatuta izan duen bilakaerak erakusten du genero arrakala murriztu egin dela hasierako faseko jardura ekintzailearekin alderatuta, eta, beraz, emakume gehienak jaio diren ekimenetan daudela. Ez, ordea, arrakala 14,4 ppkoa den negozio finkatuetan. Emakumeek gizonen baino neurri txikiagoan dituzte ekintzailtza-aren aldeko pertzepzioak, eta ekiteko asmoa duten emakumeen pisua gizonena baino txikiagoa da oraindik. Hori, besteak beste, soldata arrakalan islatzen da (-%22,4), eta horretan eragina du lanaldiak, denbora partziala ohikoagoa baita emakumeen artean gizonen artean baino. Sektoreei dagokienez, industriak maskulinizatutako sektorea izaten jarraitzen du, eta Euskadin gizonen % 80 baino gehiago okupatuta dago. Hori, besteak beste, desberdintasun hauekin islatzen da:

- Gipuzkoan, hasierako fasean dagoen jardura ekintzaileak joera aldatu du, eta emakumeen ehunekoa handiagoa da. Hala ere, sortzen ari diren ekimenen kasuan gizonen ehunekoa handiagoa da oraindik (% 56,9), bai eta finkatutako negozioen kasuan ere (gizonak % 57,2 dira).
- Euskadin, gizonen abiarazitako proiektuen batez besteko kapitala (41.350 €) emakumeena baino 2,4 aldiz handiagoa da (17.201 €). Emakumeek oztopo handiagoak aurkitzen dituzte ekintzailtza-proiektuetarako kanpoko finantzaketa lortzeko, eta horrek mugatu egiten ditu ekiteko aukerak
- Emakumeek lan baldintza txarragoak dituzte: soldata txikiagoak jasotzen dituzte (% 22,4ko soldata arrakala) eta partzialtasun, behin-behinekotasun eta abarri aurre egin behar diete.
- Emakumeek ordezkari txikia dute industriako zuzendaritza eta teknikari postuetan (% 26)
- Emakumeek sektore feminizatuetan kontzentratzeko joera dute, errentagarritasun txikiagoarekin eta lan baldintza kaskarragoekin

Kuantifikazioa: 529.290,85 (% 1,21)

Ordainketa kredituak: 384.290,85 (% 1,28)

Datozen urteetako gastuak: 145.000,00 (% 1,05)

HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Diru laguntza eskatzaileekin lehenetsi harremana euskaraz izatea, diruz lagundutako jardueren gizarteratze prozesuetan euskararen presentzia bermatzea eta, horrez gain, hizkuntza-paisaia bermatzea, euskara indartuz, euskarazko kanpo-elkarrizketa ziurtatuz.

Kategoria	Nola
6.- Hizkuntza-klausulak	6.- Hizkuntza-klausulak

GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

GIHak onartzeko planteamendu integral batetik abiatuta, garapen sozioekonomikoko eredu partekatu bat sustatzeko jarduerak garatuko dira, gizarte eta lurralde kohesioari lagunduko diona, pertsonak, enpresak eta lurraldea jasangarritasun hirukoitzean integratuz. Eta, batez ere, enpresa-lehiakortasunaren, ekintzailatza inklusiboaren, enpleguaren kalitatearen (partehartzea, gaikuntza, kontziliazioa) eta garapen endogenoaren arloko jarduketaren bidez; pertsonen berek, eragile ekonomikoek, sozialek, ekonomikoek eta lurraldekoek: hezkuntzari laguntzea (bizitza osoko ikaskuntza); genero-berdintasunari; lan duinari eta hazkunde ekonomikoari; industriari, berrikuntzari eta azpiegiturari; desberdintasunen murrizketari; baita erea aliantzak egitea GIHak lortzeko.

Kuantifikazioa: 43.780.465,59 (% 100,00)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	4-Kalitatezko hezkuntza	410.149,26	140.000,00
	Guztionezko kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.		
Helburua	4.4 - 2030. urterako, gizon eta emakume guztiek kalitatezko prestakuntza tekniko, profesional eta goi-mailakoa eskuratzeko berdintasunezko sarbidea dutela ziurtatzea, unibertsitate-irakaskuntzakoa barne	410.149,26	140.000,00
Ekintza lerroak			
Talentua sortzea, erakartzea, sendotzea eta fidelizatzea eta pertsonen gaitasunak indartzea, besteak beste, proiektu erakargarriak sortuz.		410.149,26	140.000,00
	5-Genero berdintasuna	192.145,42	72.500,00
	Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahaldundzea.		
Helburua	5.5 - Emakumeen parte-hartze osoa eta eraginkorra ziurtatzea, baita lidergoko aukera-berdintasuna ere, bizitza politikoko, ekonomiko eta publikoko maila erabakitzaile guztietan	192.145,42	72.500,00
Ekintza lerroak			
Ekintzailatza eta barne-ekintzailatza sustatzea.		192.145,42	72.500,00
	8-Lan duina eta hazkunde ekonomikoa	29.311.699,73	13.649.830,00
	Guztionezko hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.		
Helburua	8.01 - Bere horretan eustea per capita hazkuntza ekonomikoari, ezaugarri nazionalen arabera, eta barne-produktu gordina urtean gutxienez % 7 haz dadila bermatzea aurrerapen txikieneko herrialdeetan	3.541.422,95	4.125.000,00
Ekintza lerroak			
Lehiakortasunerako azpiegituren ekosistema sendotzea.		3.541.422,95	4.125.000,00

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
Helburua	8.03 - Ekoizpen-jarduerak, lanpostu zintzoak sortzea, ekintzailtza, sormena eta berrikuntza bultzatuko dituzten garapen-politikak sustatzea, eta mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen formalizazioa eta hazkundea sustatzea, baita finantza-zerbitzuak eskuratuz ere.	21.646.109,93	8.356.830,00
Ekintza lerroak			
	Enpresek parte hartzeko ereduak sustatzea, kudeaketa, kapital eta emaitza mailetan.	543.282,85	210.000,00
	Enpresa ehunaren lehiakortasuna sustatzen jarraitzea, berrikuntza, ezagutza aurreratua eta balio erantsia ardatz hartuta, lurraldearen, ingurumenaren eta gizartearen beharrei eta erronkei erantzun egokia emateko.	11.412.271,25	3.154.000,00
	Lehiakortasunerako azpiegituren ekosistema sendotzea.	6.151.670,20	3.187.330,00
	Ekintzailtza eta barne-ekintzailtza sustatzea.	3.538.885,62	1.805.500,00
Helburua	8.04 - 2030. urterako, pixkanaka hobetzea munduko baliabideen ekoizpen eta kontsumo eraginkorra, eta hazkunde ekonomikoa ingurumenaren degradaziotik bereizten saiatzea, Kontsumo eta Ekoizpen Modalitate Jasangarriei buruzko Programen Hamar Urterako Esparruarekin bat etorritik, garatutako herrialdeetatik hasita	1.600.035,95	500.000,00
Ekintza lerroak			
	Enpresa ehunaren lehiakortasuna sustatzen jarraitzea, berrikuntza, ezagutza aurreratua eta balio erantsia ardatz hartuta, lurraldearen, ingurumenaren eta gizartearen beharrei eta erronkei erantzun egokia emateko.	1.600.035,95	500.000,00
Helburua	8.05 - 2030. urterako, enplegu osoa eta produktiboa eta lan egokia lortzea emakume eta gizon guztientzat, gazteak eta desgaitasunen bat dutenak barne; eta balio bereko lanarengatik soldata berdina eman dadila lortzea	2.524.130,90	668.000,00
Ekintza lerroak			
	Pertsonen ekarpenak, gaitasunak eta konpromisoa sustatzera bideratutako enpresaren kultura sustatzea, besteak beste, emakumeen errealitateei erreparatuz.	2.524.130,90	668.000,00
	18-kultura eta hizkuntza aniztasuna Kultura eta hizkuntza aniztasuna	4.141,18	
Helburua	18.1 - Hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta errekonozimendua bermatzea, garapen pertsonal eta sozialerako ezinbesteko faktore gisa	4.141,18	
Ekintza lerroak			
	Pertsonen ekarpenak, gaitasunak eta konpromisoa sustatzera bideratutako enpresaren kultura sustatzea, besteak beste, emakumeen errealitateei erreparatuz.	4.141,18	
Guztira		29.918.135,59	13.862.330,00

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2025	2026	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2027	2028	2029	2030 eta hurrengoak/ 2030 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	783.357,00	828.321,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	1.190.964,00	1.139.764,00	195.000,00				195.000,00
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	19.073.816,00	19.826.301,00	5.118.250,00	250.750,00			5.369.000,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	21.048.137,00	21.794.386,00	5.313.250,00	250.750,00			5.564.000,00
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES							
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	722.193,00	3.105.000,00	986.000,00				986.000,00
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	722.193,00	3.105.000,00	986.000,00				986.000,00
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS	4.616.461,00	5.186.750,00	6.937.330,00	375.000,00			7.312.330,00
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras	4.616.461,00	5.186.750,00	6.937.330,00	375.000,00			7.312.330,00
Guztira / Total	26.386.791,00	30.086.136,00	13.236.580,00	625.750,00			13.862.330,00

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	828.320,59				828.320,59	
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	1.139.764,00		195.000,00		1.334.764,00	
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	19.826.301,00		5.369.000,00		25.195.301,00	
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	21.794.385,59		5.564.000,00		27.358.385,59	
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	3.105.000,00		986.000,00		4.091.000,00	
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	3.105.000,00		986.000,00		4.091.000,00	
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS	5.186.750,00		7.312.330,00		12.499.080,00	
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras	5.186.750,00		7.312.330,00		12.499.080,00	
Guztira / Total	30.086.135,59		13.862.330,00		43.948.465,59	

Sarrerren kapituluak / Capítulos de ingresos	2025	2026	Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK IMPUESTOS DIRECTOS			
2. ZEHARKAKO ZERGAK IMPUESTOS INDIRECTOS			
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK TASAS Y OTROS INGRESOS			
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	900.000,00		
5. ONDARE SARRERAK INGRESOS PATRIMONIALES		900.000,00	900.000,00
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	900.000,00	900.000,00	900.000,00
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA ENAJENACION DE INVERSIONES REALES			
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL			
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital			
8. AKTIKO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS			
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS			
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras			
Guztira / Total	900.000,00	900.000,00	900.000,00